



ATAUNGO UDALA

**ATAUNGO SAN MARTIN ENPARANTZAN LURRAZPIKO APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO ETA ENPARANTZA BERA URBANIZATZEKO OBRAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATAZEKO ADMINISTRAZIO - BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN OBJEKTUA**

Baldintza-agiri honetan oinarrituta burutuko den kontratuaren objektua honako hau da: Ataungo udalerriko San Martin enparantzan lurrazpiko aparkaleku bat eraikitze eta ondoren enparantza bera urbanizatzeko obren egikaritze bateratua, espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritz. Baldintza-agiri honek kontratubalioa du.

Deskribatutako obren arteko zuzeneko konexioa dela eta, kontratuaren objektuak esleipendun berak obra mota bi egikaritzea barnebiltzen du:

- Alde batetik, San Martin enparantzaren zorupean kokatuko den lurrazpiko aparkalekua eraikitze obrak, proiektuaren 1go Faseari dagozkionak.
- Beste alde batetik, enparantza beraren gainaldea urbanizatzeko obrak, proiektuaren 2. Faseari dagozkionak.

Kontratuaren objektuari dagokion kodea, CPA-2008 nomenklaturaren arabera: 41.00.40 (lurrazpiko aparkalekua), 42.11.20 (enparantza).

**2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hamabi hilabetetakoa izango da, epe hori zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik kontatzen hasiko delarik.

Obrak ezarritako epean burutu beharra kontratuaren oinarritzko baldintza da, eta beraz, baldintza hori ez betetzeak 13. klausulan zehazten diren penalizazioak zein kontratua bertan behera uztea ekarri ditzake, dagokion kalte-galeren ordainketarekin batera.



## **ATAUNGO UDALA**

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

### **3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa 2.057.342,40€ (bi milioi berrogeita hamazazpi mila hirurehun eta berrogeita bi euro eta berrogei zentimo) izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Prezioa era honetan desglosatzen da:

- Lurrazpiko aparkalekua eraikitzea, BEZ barne: 1.154.356,83 €.
- Aparkalekuaren gaineko enparantzaren urbanizazioa, BEZ barne: 902.985,57 €.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

### **4. FINANTZATZEA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

### **5. NOLA ORDAINDU**

Burututako obrak aldizka ordainduko dira, egiaztagiria egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

### **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 77. artikulua araberan, kontratu honetan ez da bidezkoa izango prezioak berraztertzea.

### **7. BERMEAK**

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, esleipeneko zenbatekoaren %5eko (BEZ gabe) behin betiko bermea eman beharko du.



## **ATAUNGO UDALA**

Berme hori jartzeko epea hamabost egun baliodunetakoa izango da, kontratuaren behin behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak gutziak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

### **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta hamabost eguneko epean izan behar da, kontratuak indar juridikoa hartzen duen egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete behar dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ezarritakoak eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kolokan dagoela kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.



ATAUNGO UDALA

#### **9. ESLEIPENDUNAREN LAN - BETEBEHARRAK**

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

#### **10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinalizatzeagatik gertatzen badira.

#### **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

#### **12. OBRAK HARTZEA ETA BERME - EPEA**

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obren - harreraren egintza formal eta positiboa burutuko da, egintza horren akta jasoko delarik.

Era berean, urte beteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.



## **ATAUNGO UDALA**

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obren harrera formalaren egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

### **13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

#### **A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA**

Esleipendunak bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

#### **B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA**

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

#### **C) BURUTZAPEN AKASTUNA**

Esleipendunak prestazioak akatsekin burutzen baditu, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzeko ahalmena izango du.

### **14. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOTIAK**

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.



ATAUNGo UDALA

### 15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio: a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

### 16. ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA

Kontratu honen esleipena jardunbide ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko (garrantzia eta haztapenaren arabera ordenatuta):

- Prezioa.....%60
- Epea hobetzea.....%20
- Memoria Teknikoa...%20

Azken bi irizpide hauek baloratzerakoan (epea eta memoria teknikoa) lehiatzaileek aurkeztu beharreko obren burutzapenerako planning-a eta memoria teknikoa hartuko dira kontutan.

Eskaintzak neurritz gainekoak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litekeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan xedatutako parametro objektiboek zehaztukoak izango dira.

### 17. KONTRATAZIO - MAHAIA

Ondorengo kideek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Mahaiburua: Ataungo udaleko Alkatea
- Mahaikideak: Idazkari - Kontuhartzailea
  - Udalak izendatutako Ingeniari aholkulari bat
  - Udalak izendatutako Arkitekto aholkulari bat



ATAUNGO UDALA

- Mahaiko idazkaria:

Ataungo udaleko funtzionario bat

### **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49.artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 19.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

### **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Ataungo Udaleko Erregistroan aztertu ahal izango da, goizeko 9:00etatik 14:00ak arte, egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko hogeita sei eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, Ataungo Udalaren webgunean eskuratu ahal izango delarik ([www.ataun.net](http://www.ataun.net)).



## ATAUNGo UDALA

Baldintza-agiriak eta horien dokumentazio osagarria eskatzen duten eskaintzaileei bidaliko zaizkie, eskaera hori jaso eta sei eguneko epean, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskaintzak aurkezteko epea iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, emango da, beti ere eskaintzak aurkezteko epe hori iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epe amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "ATAUNGO SAN MARTIN ENPARANTZAN LURRAZPIKO APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO ETA ENPARANTZA BERA URBANIZATZEKO OBRAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO JARDUNBIDEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"





## ATAUNGo UDALA

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

"A" kartazalaren azpтитulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie, edo bestela, zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikagarri diren erkidegoko xedapenen arabera.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan ezarritako kontratatzeke debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.



## ATAUNGo UDALA

d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta - agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lehiatzaileak ondorengo talde eta azpi-taldeetako obrak kontratatzeko gaitasuna ematen dion sailkapena duela egiaztatzen duen agiria:

C Taldea, 2 Azpitaldea, d Maila

K Taldea, 1 Azpitaldea, c Maila

G Taldea, 6 Azpitaldea, d Maila

Honi dagokionez, eta kontratuaren objektu diren obren arteko lotura dela eta, esleipenduna taldekatu edo elkartu egin beharko da bai azpikontrata bidez zein Aldi baterako enpresa-elkarte bidez, obra guztiak burutzeko. Azpi-kontratazio kasuetan, kontratista SPKLaren 210. artikuluan ezartzen denaren arabera aritu beharko da, azpikontrataturako enpresen sailkapen egokia justifikatuz azpi-kontratazioaren objektu den kontratuaren zatia burutzeko. Aldi baterako enpresa-elkarte kasuetan, ondorengo epigrafean adierazten den moduan jokatu da.

Proposamenetan, gainera, kontratuaren burutzapenaren arduradunen izena eta kualifikazio profesionala adieraziko da, kontratu honen objektu diren obretan duten esperientzia azalduz.

f) Hainbat enpresek lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-elkartea eratuz, elkartekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera eta, esleipena lortuz gero ABE formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.



**ATAUNGo UDALA**

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtagiriarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

"B" kartazalaren azpтитulua hau izango da: "DIRU PROPOSAMENA ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK". Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Honako eredu honen arabera DIRU - PROPOSAMENA:

Lehiatzailearen datuak:

.....  
.....  
.....jn/ad

helbidea.....

.....PK.....NAN.....

.....telefonoa.....

..izanik, gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna osorik dituelarik bere izenean

(edo.....

.....ordezkari gisa, haren

helbidea

.....

.....PK.....

.....telefonoa.....eta

NAN edo IFK zk (pertsone fisiko edo juridikoaren denaren arabera)

"ATAUNGO SAN MARTIN ENPARANTZAN LURRAZPIKO APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO ETA ENPARANTZA BERA URBANIZATZEKO OBRAK KONTRATATZEKO" Ataungo udalak dei egindako lehiaketaren berri izan dudala, hona hemen nire



## ATAUNGO UDALA

### ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala:.....€, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, .....€, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastua keta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:......

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditudu oso-oso.

3) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

.....,20.....(e)ko.....aren.....(a)

### Izenpea

b) Agiri honen 16. baldintzan zehaztutako esleipen-irizpideak bete direla egiaztatzeko agiriak. Zehazki, diru-proposamenarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Obren exekuziorako memoria teknikoa
- Aipatutako obren burutzapenerako planning.a

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

### **20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) kalifikatu egingo du. Horretarako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.



## **ATAUNGo UDALA**

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki-oholean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun baliouduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak kalifikaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik balego, baldintza-agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresek betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta bigarren egun balioudunean, 9:00etan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Ondoren, proposamenak balioetsi eta 16. puntuan adierazitako irizpideen arabera sailkatzeari ekingo zaio, eta egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

### **21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio Kontratazio Organoak behin-behineko esleipena.

Behin-behineko esleipena bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. SPKLaren 145.3. artikuluan aurreikusten denez, epe hori 15 egun balioudunetan luzatuko da 136.3. artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzen kasuan.



## ATAUNGo UDALA

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoari ere.

Kasu honetan, eskaintzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio behin behineko esleipena, beti ere lanak Administrazioaren gogobetetzera egiteko gaitasuna duela jotzen bada; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio behin-behineko esleipena.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hamabost egun baliouduneko epean honakoak egin beharko ditu behin-behineko esleipendunak:

- a) Egiatagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, eta baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak esleitzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria ezarri.

Behin-behineko esleipena behin betiko bihurtuko da automatikoki, goian aipatutako gehienezko hamabost egun baliouduneko epearen barruan, esleipendunak a) eta b) puntuetan adierazitakoak betetzen dituen momentuan. Aitzitik, beteko ez balitu, behin-behineko esleipendunari ez zaio behin betiko esleipena egingo.

SPKLaren 139.2. artikulua araberak, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, lizitazioak lehiatzaileei eragindako gastuak ezarriko ditu Udalak, haiei entzunaldia eskainiz eta behar bezala justifikatu ondoren.



## **ATAUNgo UDALA**

Kontratazio-organoak egingo duen behin betiko esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta hamar egun baliouduneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- a) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egon badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu. Gastu horien zenbatekoa 200€ izango da, gehienez.
- b) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta zuinketa-akta izenpetzeko.
- c) Azkenik, Udal honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduta.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-izaerakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai Herri Administrazioen kontratazioan aplikagarri diren gainerako arauak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.



## **ATAUNGo UDALA**

### **23. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

### **24. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.